

# **Funtsesko baliabideak**

Gure produktua aurrera eramateko, hainbat baliabide beharko ditugu. Hauek dira baliabide bakoitzen ezaugarriak:

## **-Baliabide fisikoak:**

Gure produktuaren piezak egiteko zatitu behar dira, beraz lantegi ertain bat alokatuko dugu. Zumarragan kokatuta dago. alokailua 1500€-koa da hilabetero eta 405m<sup>2</sup> -koa da.

Gela haundi bat denez bi zatitan banatuko dugu. Zati bat biltegirazeko erabiliko dugu, Egiten ditugun piezak bertan gordetzea eta gero dendetara pidaltzea. Beste zatia lana egiteko izango da, bertan egurra moztu, heldulekuak jarri etab. egingo da. Bulego bat dauka, despatxu bat. Jantoki, aldagela eta komunak ere ditu


Lana egiteko tokian, egurra mozteko makina bakarra egongo da. Beste aldea, biltegi tokian, biltegiratzeko egiturak egongo dira, bi aldetan kokatuak. Ordenagailu bat egongo da guztia kontrolatzeko eta produkzio zehatza jakiteko.

Denda online daukagenez, wifi router bat egongo da. Internet konektatzeko behar duguna

## **-Baliabide intelektualak:**

Web orri bat sortuko dugu. Honetan produktu berrien berri, non kokatuta gauden, gurekin kontaktuan jartzeko eta erosteko aukerak egongo dira. Beste dendekin elkartuko gara gure produktua saltzeko denda fisikoetan, online bakarrik ez eskuratzeko. Marketin estrategia

bezala, sare sozialak izango dira garrantzitsuena moda aktuala delako, gure produktua azkar jakinarazteko eta merkatuan impaktua izateko. Produktu berri bat denez patentatuko dugu eta 2021 ean Espainian hau egiteko prezioa telematikoki 86.17€ dira. Armairua erosterakoan, guk garatutako Software-a zuzenean instalatuta etorriko da bertan, honek denborarekin aktualizazioak jasango ditu. Aplikazioak hasieran zure datu pertsonalak eskatuko dizkizu (izena,abizena...) baita beste datu zehatzak ala nola altuera,pisua... zure tamainako arropa aurkitzeko. Ondoren aukera izango duzu duzun arroparekin konbintzen duen beste arropa erosteko (Aplikazioak gomendatzen du), gainera beste pertsonak ipintzen dituzten balorazioak ikus ditzakezu. Beste aldetik gure aplikazioak egunero erabiltzen duzun arropa erregistratzen du eta denbora pasata zure gustuak gehiago ezagutuko ditu beraz zure gustuko arropa gomendatuko dizu. Beste erabilera, zuk zuzenean armairuari zer arropa jarri eskatzea da eta honek outfit bat gomendatuko dizu, kliman eta zure gustu pertsonalean oinarrituta, hau guztia armairuan dagoen pantalia erabilita. Baina armairua erosteko aukera ez baduzu aplikazioa ere eskuragarri egongo da play store-n eta app store-n. Aplikazioa armairuaren antzekoa izango da, gauza batzuk kenduta. Armairua erostean iragarkiak kenduko dira eta blokeatuta zeuden atalak desblokeatuko dira.



## **-Giza Baliabideak:**

Gure enpresak 9 langile kontratakuko ditu gurekin batera lan egiteko, beraz 13 langile osatzen dute gure enpresak.

Horietatik bi, informatikariak dira eta armairuak duen pantailaren programak egingo dituzte, gainera webgunea sortuko eta kudeatuko dute. Bi langile egurra makina bat erabiliz mozteaz eta neurri egokiak izateaz arduratuko da. Beste lau langile egur hori muntatzeaz eta beste piezekin batera jartzeaz arduratuko dira (Ispilua, torlojuak, kutxak...), hau da armairua eraiki prest dauden piezak erabiliz.

Gelditzen diren 4 langile guk gara eta bakoitzak sektore bat kudeatuko du, Mikel bidalketak kontrolatuko ditu, Ibai inguruko enpresekin harremanak kudeatuko ditu (Marketing, kolaborazioak...) , Xabi diru kontuak kontrolatuko ditu eta Aritz bezeroekin harremanak eramango ditu.

## **-Finantza Baliabideak:**

Enpresa sortu ahal izateko 60000€ ko mailegua eskatu egingo diogu bankuari, diru honekin lehenengo soldatak, materialak, makinak... ordainduko ditugu. Pixkanaka pixkanaka, mailegu hori ordainduko dugu enpresak ateratako etekinarekin, 5 urteko mailegua denez %6 interesarekin ordaindu behar dugu bueltan. Beraz 1160€ ordainduko ditugu hilabetero.